

LIBURUAK

Bakardadean gautza

Gizalde bat, kultura bat ulertzen hasi ahal izateko, gizaldea haren gogoan ondoen azaltzen duten adierazgarrietara jo beharra dago. Txinari dagokionez, haren poetika ia infinitua dugu herri zahar haren aurpegia fidelen islatuko digun miraila.

Poetaren inguruan indarkeria legea bada, buruzagiek, boterea lortu eta iraunaraztearen, etengabe erregimen totalitarioak badarabiltzate, poetak, herriak, banako babesgabeak modu bakarra du bizirauteko: montzoia-aren enbata bortitzak jasaten dituen belar printzaren antzera, malgu moldatzea, sasoi hobea noiz etorriko... Ez da harrigarri, beraz, Kristo aurreko XVIII. mendean, zegoeneko, poesiak banakoaren baita begira jartzea, egunerokotasunaren alderdirik arruntenei so egitea.

Txinatar poesia, irudi sinkretikoak, soinuak, tonuak, ikurrak, musika halako bat... Txinatar idazkerak berak legetxe. Euskarazko bertsiu honetan ere, berba bakoitzak pisu ikaragarria biltzen du, atzean irudi multzo oso bat duenez gero.

Itotzear

Hizkuntza arrotz batean irakurtzeko gostua hartzen denean, mintzaera haren soinuak ez gaitu uzten, batez ere, euskararen lehen auzo-eldia delarik. Duela zenbait hilabete emeki-emeki arakatu genituen Sergi Javaloyesen *La Set* (Egarrria) nobelako hostoak eta Nayen bizi den idazle bearnesak, hilabetea eskas, IEO argitaletxean plazaratu eman duen elaberria eskuratu dugu: *Tranga & Tempèstas* deitzen eta guztiak ulertzeko gisako okzitandar estiluan izkiriatua da.

Segur aski tenpesta apagai dauzkan obra honi, oraindik bizi balitz, Thomas Bernhard ikaragarriak *Berne Leherketa* azpiztitulua eskainiko bide zion. Baina utz ditzagun ingumak ingumekin eta goazen harira. Hamar kapitulu eta amets bakarrean biribilkatzen da Javaloyesen solasa: egungo ekaitzak atzoko eta hereneguneko ezin-erranak, sentipenak, gogapenak inarosten dizkio Miqueu narratzaileari. Halaz orrialde bakoitzaren, Bearnera bizitzera etorri zen unetik haste, Oran aljeriar hiriko haur-denborako oroitzapenak jaukitzen zaizkigu; ama kuraiosaren itxura, aitaren



'URRUTIRA BIDALIA'

Egilea: Li Bai.

Itzultzailea: Albert Galvany, Pello Otxoteko.

Argitaletxea: Alberdania.

Urtea: 2005.

Mendebaldean legez, Li Bai-aren garaian baziren, izan, funtzionario-poetak gordean. Hara zenbaterainoko itzala zuen gizarden poesiak. Li Bai, lanik-edeo izan bazuen gordean, berehalaxe galdu zuen, edari sorgortzaileak larregi bisitatzen bide zuelako.

Li Bai abstrakzioa eta sentimenduen bizitasuna lantzen zituen. Haren poesiak, gure aroko zortzigarren mendekoak izanda, lotura estuak zituen herriko musika eta kantekin.

Poetaren biografiaren hainbat zertzelada heldu zaigu. Ama ez omen zuen txinatar, eta horrek, antza, argiren bat egin dezake poetak bere garaiko gazteek edaten ez zuten iturrietan aze izanaren gainean. Konfuziotar testuak barik, liburu bitxi eta eklektikoak zituen gustuko, baita esgrima eta... hilezkor izateko eromen geldiezin bat ere. Taoismoa gurago izan zuen, dotrina liberalagoa izateaz gain, hilez-kortasuna agintzen zuelako sinestunei. Bizi izan zuen garaian Txina kultur arrago moduko bat zen: konfuziozaleak, taoistak, mahometarrak, manikeoak, zoroastrotarrak eta kristau nestoriarriak elkarren ondoan egon zitezkeen, sinesmen eta kultur trukea lantzen.

Gaztetan harekin ezkontuta-ko emaztea, lanpostua eta aberastasanak berehalaxe galarazi zizkion edariak. Hainbat gora-beheraren ostean, printze matxino baten ondoan egon izanak, arrakasta berpiztu halako bat ez ezik, boteretsuen aurkakoen mendekua ere erakarri zion. Kartzela ere izan zuen goitza, eta amnistia batek aske utzitako-

an, hil egin zen lakuko iretargi islatua besarkatu guran. Berrogei urte iraun zuen poetaren gorpuak lurperatzeke, ondorengoen pobrezia zela kausa. Lagun aspaldiko batek ordaindu ei zion bizitzan hainbeste irrikatu zuen Mendi Orlegiko hil osteko etzaleku.

Poemak testu motz-motzak, trinkoak, eta, euskarazko honako hauetakoak, hainbat irudirik adina edo gehiago ere balio duten poetan izkiriaturik utzi zizkigun txatalak, seguru asko, berberak gura ez zuela ere, haren erraiek diktatuta... eta beharturik.

Eskertzekoa da Alberdaniak edizio elebiduna plazaratu izana, txinatar idazkera bera, bere hartan, bestelako poesia halako bat delako begiarentzat. Euskal Herriko kultura eta Txinakoa, itxura batean, elkarrengandik ezinago urrun daude. Halere, Galvanyk eta Otxotekok proposatzen diguten aukera honetako hainbat irudik ber-bertokoak dirudite. Bakardadean, lanbro horietan behera, bedatseko haizeak gure adioaren berri daki eta.

© **Karlos del Olmo**



'TRANGA & TEMPÈSTAS'

Egilea: Sergi Javaloyes.

Argitaletxea: IEO. **Urtea:** 2005.

heriotza, Miqueuren sortzea, denak haize buhako azkar eta galerna bezperetan azaltzen dizkigu idazleak, hitzetan berean mehatxua bermatzen baitiztzen.

Bihotzaren eta izpirituaren nahaste-borrastea eragiten dio aitaren ehortzetan aitzinako jendeen gurutzatzeak, burzororaino, itolarriraino, gohairaino. Irakurlearentzat bada hor, narratzailea hondorik gabeko zulo beltzean behera lerratzen delako irudipena eta batzuetan, hizkuntza arrotza izan arren, hatsa hartzea zail bilaka dakioke. Airean eskasten zaion unean, preseski azaltzen da Capbretonen, Bordelasko errugbi taldeko

bost gazte zainart eta buruberoen —idazlea barne, ezpondan dagoela ausartzia faltaz— balentria itsasbesoa igerika zeharkatze saioaren kontaktak: bostetarik lau salbatzen dira, bat salbu. Tragedia. Nobelaren ardatza dela ematen du kapitulu honek, hein batean, nobelaren izateko arrazoia. Dena dela, liburuak antsiatsuen da.

Agian bizitzaren metafora bat bezala leitzekoak genuke kapitulu hau. Alabaina anitzetan zola-aren zola jo behar da, nolabait berriz gora igotzeko. Ur-jokoe-tan trebe diren haurrek hori ederki badakite eta ez dute marrazki premiarik. Itoketa horren ondotikako istorioaren uhina baketsuago datorkigu, arazoak konpanduak ez, ordea idazlea urak dakarrena urak daroalakoak konbentzituak dela. Zuzendari lanpostutik kanporatua da narratzailea, baina neskatza baten ezagutza egina du eta harek du menturaz amak uretik eta uholdean zamapatik ateratzen lagunduko. Orozbat aitaren ehortzetaren karietara, amaz eta amatatz nola, hala amantetzat nahiko lukeen emazteaz: *love rescue me* abesten

zuen garai batean Bono U2ko kantariak, zakur amikatuak zinominokatuz!

Tranga & Tempèstas Sergi Javaloyesen nobela funtsean, itxuraldatze eta salbatze biluzi baten kronika meteorologikoa da. Unerik latzenetan, Aljeriako gerla atariko Gran Arbo auzoaren gozotasun mikatz eta gogorra itxuratzen du, isladatzen, idealizatzen, hor kausituko bailuan ihardukitzeko eta aurrera tematzeko aitzakia, urrats garrikideen bermea. Guztia mila pusketan zartatzen denean, haurzaro-oroitzapenei lotzen gataizkie, onak edo txarrak izan, haiek baikaituzte gu mol-datu eta haietan baitaude arras ez amiltzeko segurtasun-tresnak.

Liburu sentiberatsua oparitu digu gure adiskide bearnesak. Ez autobiografikoa, baina hala ere egiazki *jasan* dituen hainbat gertakariarik biziki hurbil dabilena, tranga eta tenpesta erral-doietan, gaurko mamuak berriz urkatzearen. Irakurtzerakoan, idazleak bere askatze eta izpiritu garbitzearen lekuko izatera uzten gaitu.

Uretarik salba bedi hitza. © **Itxaro Borda**

LETRA JORRAN

Ixiar Rozas



Aztarna nekrologikoak

Aztarnaz eta ekologiaz. Amerikar baten aztarna ekologikoa 9,6 hektareakoa da; Europan eta Euskal Herrian, berriz, 5 hektareakoa da; alegia, 5 hektareako azalera behar dugula kontsumitzen duguna egoizteko. Planetako gainontzeko biztanle bakoitzari horren erdia baino gutxiago dagokio.

Aztarnaz eta nekrologiaz. Zapa Bilboko kale ezagun batean bizi zen, bertatik botatzea lortu zuten arte. Plataformadun zapatekin ibiltzen zen, zuen metro eta erdi eskasari presentzia gehiago emateko asmoz. Eguna manta artean estalita ematen zuenez, ez nuen inoiz haren aurpegia ikusi, asko jota plastikozko taokekin urruntzen ikusten nuen kalearen amaieran.

Igande batean, gauetz, nerabe koadrila batek Zapa inguratu zuen. Ostikoka hasi zitzazkion. Gerturatu nintzen-erako hanka egin zuten erasotzaileek Bilboko kale ezagunetik. Orduan ere ez nion aurpegia ikusi Zapari, zerbait behar zuen galdetu nion, ez zidan erantzun. Biharamunean, Zapa ez zegoen bere espaloi zatian. Lucak, inguruan txirularekin ibiltzen den italiarrak, mezua idatzi zion kartoi zati batean: «Zapa nos vemos luego, Luca». Ez dakit gero topo egin zuten, baina egun hartan, edo beste batean, txirulari ematen dion bitartean paretan bermatzen duen motxila lapurtu zioten Lucari. Kalean ibiltzen den beste norbaitek. Egun gutxira, biolinista japoniar apartak ere eraso bat jasan zuen, gazte batek zapi batean zituen txanponetara eskua luzatu eta korrika ihes egin zuenean. Hari zaplaztekoa eman ostean, jotzen jarraitu zuen biolinista, zirkinik egin gabe.

Aztarnaz eta kaleez. Bilboko kale ekologikoen World Series Formula zirkuituan parte hartuko dutenen aztarna beltzak bereganatuko dituzte, laster. Abiada bizian igaroko dira autoak. Zaparen mantak hegaldutako dituzte, Lucaren txirularen zuloetan barrena sartuko da haien zarata eta musikariaren sokak abiarapean tinkatuko dira. Biharamunerako prest egongo dira ikusleen, ostalaritzaren eta publizitatearen kopuru larde-riatsua, zirkinik egin gabe.